



BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Normalean, saltzaileen helburua, beraien produktuak saltzea izaten da, gure helburua aldiz, gure bezeroen, hau da, pertsona itsuen egunerokotasuna errazagoa egitea da. Produktua zertan datzan, nola erabiltzen den eta produktuari buruz dakigun informazio guztia gure webgunean egongo da, horrela, produktua erosterako orduan, argi geratuko zaie zertarako den eta ea beraiek bilatzen ari diren produktua hori den.

Gure webgunea: <https://blind-stick4.webnode.es/>

Bezero berriak erakartzeko, gure lehenengo bezeroei beraiek gure produktuataz zein iritzi duten galdetu diezaiokegu, ea hobeto moldatzen diren horrela edo beraien egunerokotasuna errazagoa den. Modu horretara, jendea erakarriko dugu eta gure produktua probatu nahi izango dutenez, bezero berriak lortuko ditugu. Gure bezeroen iritzia jakin ahal izateko gure webgunean gure gmaila eta tefelonoa aurkitu dezakete, horrela kontuan hartu al izango ditugu haien kezkak.

Gure bezeroak mantentzea, agian erronka zaila izango da guretzat azkenean guk saltzen ditugun produktuak iraupen luzekoak direlako eta ez dituzte denbora laburrean aldatu beharko. Bezero berriak lortzeko, beraietaz arduratzen garela eta gure lana serio hartzen dugula ikusi ahal izateko beraien kezkak kontuan hartuko ditugu, beraz, gure dendara etortzen ala webgunean erosten jarraituko dute.